



 <p>Getxo UDALA • AYUNTAMIENTO</p>	<p>Getxoko Udala Informatika Basagoiti etorb., 20 48992 GETXO – BIZKAIA</p>	<p> http://www.getxo.net/  informatika@getxo.net  944.66.02.16  944.66.02.19</p>
--	---	---



GETXOKO UDALA

Getxoko Udalaren fakturazio elektronikoa Kontzeptuak eta Jarraibideak

Getxoko Udalaren fakturazio elektronikoa

Kontzeptuak eta Jarraibideak

AURKIBIDEA

1.	HELBURUA.....	1
2.	ZERIKUSIA DUTEN KONTZEPTUAK	2
3.	FAKTURA ELEKTRONIKOAK SORTZEA ETA AURKEZTEA	3
3.1.	FAKTURA ELEKTRONIKOA SORTZEKO SOFTWAREA DESKARGATZEA ETA INSTALATZEA	3
3.2.	FAKTURA ELEKTRONIKOA SORTZEKO SOFTWAREAREN HASIERAKO KONFIGURAZIOA	3
3.3.	FAKTURAZIO ELEKTRONIKOA SORTZEA.....	8
3.4.	FAKTURA ELEKTRONIKOA SINATZEA / JAULKITZEA.....	9
3.5.	FAKTURAZIO ELEKTRONIKOA BIDALTZEA	11
4.	JARRAIBIDE OROKORRAK.....	13
5.	OHIKO ARAZOEN KONPONKETA.....	16



Getxoko Udala
Informatika
Basagoiti etorb., 20
48992 GETXO – BIZKAIA





 <http://www.getxo.net/>
 informatika@getxo.net
 944.66.02.16
 944.66.02.19

1. HELBURUA

Fakturak sartzeko puntu nagusia funtzionaltasun guztiekin ezarri aurretik, faktura elektronikoa sustatzeari eta Sektore Publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeari buruzko abenduaren 27ko 25/2013 Legean xedatutakoarekin bat etorriz (erakunde hau lanean ari da martxan jartze operatiboa lehenbailehen egiteko), faktura elektronikoak hartzeko baliabideak egokitu dira.








Getxoko Udala
Informatika
Basagoiti etorb., 20
48992 GETXO – BIZKAIA

 <http://www.getxo.net/>
 informatika@getxo.net
 944.66.02.16
 944.66.02.19

2. ZERIKUSIA DUTEN KONTZEPTUAK

- **Faktura elektronikoa:** faktura elektronikoak fitxategi informatikoak dira, eta legearen arabera **“formatu egituratua** eduki behar dute eta **sinadura elektronikoa aurreratuekin sinatu** behar dira, **onartutako ziurtagiri batean** oinarrituta”. Ondorio praktikoetarako, **PDF dokumentu bat ez da faktura elektronikoa**, ez baitauka automatizatzea ahalbideratzen duen formatu egituraturik.
- Bigarren baldintza da faktura elektronikoak **sinatuta** egon behar duela. Eskuz idatzitako sinadurekin gertatzen denaren kontra, sinadura elektronikoa guztiek ez dute balio bera. Berme juridiko guztiak ematen dituena **sinadura elektronikoa aurreratua** da, **onartutako ziurtagiri** batean oinarritua.
- **Sinadura elektronikoa aurreratuak** erabiltzailea zalantzarik gabe identifikatzea ahalbideratzen du (autentifikazioa), sinatutako dokumentuetan gerora egindako aldaketak aurkitzea ahalbideratzen du (osotasuna) eta sinatzailea sinatutako datuekin lotzen du (ez errefusatzea).
- Sinadura elektronikoa **onartua** izan dadin, **onartutako ziurtagiri elektronikoa** batekin sinatu behar da, hau da, sinatzailearen esku bakarrik dauden bitartekoak erabiliz (pin), eta sinatzeko erabiltzen den ziurtagiria **konfiantzako hirugarren batek edo ziurtapen zerbitzuen hornitzaile batek abalatu behar du**. Ziurtapen zerbitzuen hainbat hornitzaile daude: Izenpe, Fábrica Nacional de Moneda y Timbre (FNMT), etab.
- **Faktura elektronikoa sortzeko softwarea:** programa edo aplikazio informatiko bat da, faktura elektronikoak sortu, sinatu (ziurtagiri elektronikoa bat erabiliz) eta, nahi izanez gero, bidali ahal izateko. Hornitzaile bakoitzak bere faktura elektronikoko softwarea eduki ahal du. Gainera, faktura elektronikoak sortzen uzten duten programak daude, dohainekoak. Hona hemen horietako bi:
 - **Ef4ktur:** Izenperen softwarea faktura elektronikoak sortzeko. Helbide honetan deskargatu ahal da: <https://www.ef4ktur.com/index.php?lang=es>
 - **Facturae:** Industria, Energia eta Turismo Ministerioak Fakturazio Elektronikoaren Kudeaketarako aplikazioa garatu du, faktura elektronikoak Facturae formatuarekin (PRE/2971/2007 agindua) sortu ahal izateko, modu eroso eta errazean. Software irekiz eginda dago programa hau. Batez ere ETEei, mikroETEei eta langile autonomoiei zuzendutako programa da. Paperezko fakturak biltegitratzeak dakartzan arazoak konpontzen lagunduko die horiei guztiei. <http://www.facturae.gob.es/formato/Paginas/descarga-aplicacion-escritorio.aspx>
- **Facturae 3.2 edo 3.2.1 formatua:** gaur egun, legeak jasotzen duenez, “administrazio publikoek bidaltzen zaizkien faktura elektronikoek Facturae-ren 3.2 edo 3.2.1 bertsioko faktura elektronikoaren formatu egituratua eduki behar dute”. Horrela, bada, faktura elektronikoa sortzen duen softwareak bete behar dituen baldintzetako bat formatu horretan fakturak sortzea ahalbideratzea da.
- **XML eta XSIG:** luzapen horiek eduki behar dituzte softwareak sortzen dituen fitxategi informatikoek. Baliodunak eta parekoak dira biak. Luzapen horiek ez dauzkan beste edozein fitxategi ez da faktura elektronikotzat joko.
- **Faktura elektronikoak sartzeko puntu nagusia:** administrazio publiko bakoitzak FESPN bat eduki behar du, berea nahiz orokorra. Administrazio publiko batean aurkeztu behar diren faktura elektronikoa guztiak haren FESPNaN eman behar dira, fakturak aurkezteko dauzkan bitartekoen arabera.

	<p>Getxoko Udala Informatika Basagoiti etorb., 20 48992 GETXO – BIZKAIA</p>	<p>  http://www.getxo.net/  informatika@getxo.net  944.66.02.16  944.66.02.19 </p>
---	--	--

3. FAKTURA ELEKTRONIKOAK SORTZEA ETA AURKEZTEA

Faktura elektronikoak sortu eta aurkezteko beharrezkoa izango da ondoko osagaiak edukitzea:

- Faktura elektronikoa sortzeko softwarea
- Sinadura elektronikoa sinatzeko onartutako ziurtagiri elektronikoa
- Sortutako eta sinatutako fakturak aurkezteko bidalketa-bitartekoa

Fakturazio elektronikoaren prozesuak ondoko urratsak edukiko ditu:

- Faktura elektronikoa sortzeko softwarea deskargatzea eta instalatzea
- Faktura elektronikoa sortzeko softwarearen hasierako konfigurazioa
- Fakturazio elektronikoa sortzea
- Faktura elektronikoa sinatzea / jaulkitzea
- Fakturazio elektronikoa bidaltzea

Orain prozesua Getxoko Udalari egokituta deskribatuko dugu, Izenperen ef4ktur softwarea adibide hartuta.

3.1. FAKTURA ELEKTRONIKOA SORTZEKO SOFTWAREA DESKARGATZEA ETA INSTALATZEA

Azaldu dugunez, beharrezkoa da software bat, aplikazio informatiko bat, edukitzea, faktura elektronikoa sortu ahal izateko. Hornitzaileak dagoeneko horretarako software bat badauka, ez du zertan urrats hori egin. Bestela, dohaineko softwarearen bat deskargatu behar du eta bere ordenagailuan instalatu, horretarako deskarga-kokalekuetan ematen diren jarraibideak betez.

3.2. FAKTURA ELEKTRONIKOA SORTZEKO SOFTWAREAREN HASIERAKO KONFIGURAZIOA



Faktura elektronikoa sortu baino lehen, erabiliko dugun aplikazioan konfigurazioa egin eta hasierako datuak kargatu beharko dira. ef4ktur softwarearen kasuan, pausu hauek bete beharko dira:


- Posta elektronikoko zerbitzaria konfiguratzea: horrek posta elektronikoz sortutako fakturak modu automatizatuan bidaltzen lagunduko digu. Goiko menuaren bidez iristen gara horra: Tresnak → Konfigurazioa → Posta:



**Getxoko Udala
Informatika**
Basagoiti etorb., 20
48992 GETXO – BIZKAIA


<http://www.getxo.net/>
informatika@getxo.net
944.66.02.16
944.66.02.19



 <p>Getxo UDALA - AYUNTAMIENTO</p>	<p>Getxoko Udala Informatika</p> <p>Basagoiti etorb., 20 48992 GETXO – BIZKAIA</p>	<p>http://www.getxo.net/ informatika@getxo.net 944.66.02.16 944.66.02.19</p>
--	--	--

Hemen hornitzaileak posta zerbitzariaren, erabiltzailearen eta pasahitzaren datuak identifikatu behar ditu eta, azkenik, mezua faktura elektronikoarekin batera bidaltzeko erabiliko duen posta elektronikoko helbidea (bidaltzailea) adieraziko du.

- Sinadura aurreratua konfiguratzeko: aurreko panel berean, “Sinadura aurreratua” aukeran, “Sinadura, denbora-zigiluarekin...” aukera desmarkatu behar da, hemen azaltzen denez:




- Faktura jaulkitzen duen enpresaren datuak kargatzea: Kudeaketa → Nire sozietateak atalean fakturak jaulkiko dituzten enpresak sortu behar dira:



**Getxoko Udala
Informatika**
Basagoiti etorb., 20
48992 GETXO – BIZKAIA

 <http://www.getxo.net/>
 informatika@getxo.net
 944.66.02.16
 944.66.02.19



Horretarako, honelako fitxa bat bete beharko da:

Crear sociedad

Tipo del sujeto:

Razón social: *

Nombre:

Primer apellido:

Segundo apellido:

Residencia:

Dirección: *

Código postal: *

Pais: *

Población: *

Provincia: Otra provincia:

Identificador fiscal: *

Email: *

Serie facturas:

Serie rectificativas:

IBAN: Núm cuenta:

SWIFT:






Localidad (Reg. Merc.): Tomo (Reg. Merc.):


Libro (Reg. Merc.): Sección (Reg. Merc.):

Folio (Reg. Merc.): Hoja (Reg. Merc.):


Otros datos (Reg. Merc.):

- Bezeroen datuak kargatzea: fakturatuko zaien bezeroetako bakoitzari bere fitxa erantsi beharko zaio, Kudeaketa → Bezeroak/Hornitzaileak atalean

	Getxoko Udala Informatika Basagoiti etorb., 20 48992 GETXO – BIZKAIA	 http://www.getxo.net/  informatika@getxo.net  944.66.02.16  944.66.02.19
---	---	---



Getxoko Udalari dagokion fitxa honela bete behar da:



Modificar cliente/proveedor

Rol: Clientes

Tipo del sujeto: Jurídica

Razón social: * Getxoko Udala

Nombre:

Primer apellido:

Segundo apellido:

Residencia: Residente

Dirección: * Fueros, 1

Código postal: * 48992

Pais: * España

Población: * Getxo

Provincia: Bizkaia Otra provincia:

Identificador fiscal: * P4805300C

Número de departamento:

Departamento:

Email: * efaktura@getxo.eus

Contacto adicional:

Favorito:

Email de envío: efaktura@getxo.eus

Especificación Webservice: Ef4ktur FACe

Punto de salida:

Operación:

Namespace:

Nodename:

Archivo datos contratante:

Tipo de pago: Transferencia

Tipo de pago diferencial: 30 días

“Bidalketa emaila” eremuan ondoko bi helbideetako bat jarri behar dela adierazi behar da:



Getxoko Udala
Informatika
Basagoiti etorb., 20
48992 GETXO – BIZKAIA



<http://www.getxo.net/>
informatika@getxo.net
944.66.02.16
944.66.02.19

efaktura@getxo.eus / efactura@getxo.eus

Udalaren erakunde autonomoren bati fakturatzeko bazea, fitxa egokia bete beharko da haietako bakoitzerako, baina “Bidalketa emaila” eremua berbera izango da.

3.3. FAKTURAZIO ELEKTRONIKOA SORTZEA

Hasierako konfigurazioak egindakoan eta datuak kargatutakoan, bai “Nire sozietateak” atalean bai “Bezeroak” atalean, faktura sortu ahalko da, Fakturazioa → Jaulkitako fakturak → Fakturak → Faktura berria atalaren bidez.



Crear factura

Cabecera
 Versión: 3.2 Serie factura: Núm. factura: * 3 F. Operacion: 14-05-2015 F. Emisión: 14-05-2015

Periodo de facturación
 Desde: 14-05-2015 Hasta: 14-05-2015

Otros datos
 Código de pedido: Código de contrato: Fecha de vencimiento: 14-05-2015
 Concepto: Núm. expediente: [Gestión de albaranes](#)

Datos del emisor de la factura
 Razón social: Euskaltel S.A. - A48766695
 Dirección: Parque tecnológico, 809, Bizkaia Derio, 48160

Datos del receptor de la factura
 Razón social: Getxoko Udala - P4805300C
 Dirección: Fueros, 1, Bizkaia Getxo, 48992
 Contacto adicional:
 Tipo de pago: Transferencia [Datos Contratante](#)

Detalles de los conceptos de la factura

Descripción	Nº unidades	Importe unitario	Descuentos(%)	Total	IVA(%)	R.Equi(%)

Gastos financieros: 0,00

Bruto: 0,00 Descuento: 0,00 Base imponible: 0,00
 Impuestos retenidos: 0,00 Impuestos repercutidos: 0,00 Total factura: 0,00

[Aceptar](#) [Cancelar](#)

3.4. FAKTURA ELEKTRONIKOA SINATZEA / JAULKITZEA

Faktura sortzen denean, “Zirriborroa” fitxan geratuko da:




**Getxoko Udala
Informatika**
Basagoiti etorb., 20
48992 GETXO – BIZKAIA

<http://www.getxo.net/>
informatika@getxo.net
944.66.02.16
944.66.02.19


Número factura	Nombre emisor	CIF emisor	Nombre receptor	CIF receptor	Fecha	Importe
2	Getxoko Udala - Ayuntamiento d...	P4805300C	Getxoko Udala	P4805300C	02-02-2015	632,23 3...

Número factura	Nombre emisor	CIF emisor	Nombre
2	Getxoko Udala - Ayuntamiento d...	P4805300C	Getxoko

Eta Sinatu/Jaulki botoiaren bidez Jaulkitakoak fitxara eramango dugu:


 <p>Getxo UDALA - AYUNTAMIENTO</p>	<p>Getxoko Udala Informatika</p> <p>Basagoiti etorb., 20 48992 GETXO – BIZKAIA</p>	<p>http://www.getxo.net/ informatika@getxo.net 944.66.02.16 944.66.02.19</p>
--	--	--

Horretarako, aldez aurretik ziurtagiria geure ordenagailuan eduki behar dugu (normalean txartel-irakurgailu baten bidez). Sinatzeko prozesuak ziurtagiriari dagokion PINa edo pasahitza sartzeko eskatuko digu.





3.5. FAKTURAZIO ELEKTRONIKOA BIDALTZEA


Faktura emandakoan, “Jaulkitakoak” bigarren fitxan geratuko da:



Eta Bidali botoiaren bidez bidaliko dugu:



 <p>Getxo UDALA - AYUNTAMIENTO</p>	<p>Getxoko Udala Informatika</p> <p>Basagoiti etorb., 20 48992 GETXO – BIZKAIA</p>	<p>http://www.getxo.net/ informatika@getxo.net 944.66.02.16 944.66.02.19</p>
--	--	--



Garrantzitsua da “Faktura PDF formatuan sartu” aukera ez markatzea, gure FESPNak ez baitu formatu hori onartzen. Gaia eta Edukia eremuak hautazkoak dira. Ziurtatu behar dena da “Hartzailea” eremuko posta elektronikoa hauetako bat dela:

efaktura@getxo.eus / efactura@getxo.eus

Bidalketa horrela egiten saiatzean programak errore bat itzultzen badu eta adierazten badu ezin izan dela egin, arazoa da Tresnak → Konfigurazioa → Posta atalean egindako konfigurazioa ez dela zuzena. Berrikusi behar da eta bidalketa berriro egiten saiatu.

Bidalketa egitea lortzen denean, faktura “Bidalitakoak” fitxan geratuko da. Getxoko Udalaren FESPNak mezu bat itzuliko du, mezua bidali den helbidera edo fakturaren jaulkitzailearen datuetan adierazitako helbidera. Mezu horren bidez jakinaraziko du faktura ondo jaso dela edo, balidazioren bat okerra bada, egin den okerraren berri emango du.



Getxoko Udala
Informatika
Basagoiti etorb., 20
48992 GETXO – BIZKAIA

<http://www.getxo.net/>
informatika@getxo.net
944.66.02.16
944.66.02.19

4. JARRAIBIDE OROKORRAK

A) Bi kasu hauetan bakarrik sortuko da faktura elektronikoa aurkezteko **obligaziotik salbuetsita** egoteko aukera:

- Faktura pertsona fisiko batek igortzen badu
- Faktura pertsona juridiko batek igortzen badu eta 5.000,00 euro edo gutxiagokoa bada

Aipatutako bi kasuetan faktura elektronikoa nahiz betiko faktura, paper-formatukoa, aurkeztu ahalko dira, lehenengo aukera gomendatzen den arren.

B) Getxoko Udalera edo haren edozein erakunde autonomora **faktura elektronikoak bidaltzen** dituzten hornitzaileek baldintza eta mekanismo hauek bete beharko dituzte:

1.- Fakturen formatua **Facturae versión 3.2** izan beharko da.

2.- Lehen fase honetan, fakturak posta elektronikoko helbide hauetara bidaliko dira:


efaktura@getxo.eus / efactura@getxo.eus

Esteka edo helbidea udaleko webgunean ere ageri da

(<http://www.getxo.eus/>)

3.- Honako hauek dira fakturan agertu beharko diren datuak, zein erakunderi zuzenduko zaizkion kontuan hartu beharko da:

Erakundea	IFK	Unitateen kodeak		
		Erakundea	Kontabilitate - bulegoa	Tramitazio-unitatea
Getxoko Udala - Ayuntamiento de Getxo	P4805300C	L01480448	L01480448	L01480448
Kultur Etxea - Aula de Cultura	Q4800695A	Q4800695A	Q4800695A	Q4800695A
Musika Eskola - Escuela de Música	P9805301J	P9805301J	P9805301J	P9805301J

 <p>Getxo UDALA - AYUNTAMIENTO</p>	<p>Getxoko Udala Informatika</p> <p>Basagoiti etorb., 20 48992 GETXO – BIZKAIA</p>	<p>http://www.getxo.net/ informatika@getxo.net 944.66.02.16 944.66.02.19</p>
--	--	--

Erakundea	IFK	Unitateen kodeak		
		Erakundea	Kontabilitate - bulegoa	Tramitazio-unitatea
Gexo Kirolak	G48117600	G48117600	G48117600	G48117600
Udal Egoitza -Residencia Municipal	P9805302H	P9805302H	P9805302H	P9805302H


Adi, garrantzitsua! Nahitaezkoa da fakturaren hartzaillearen IFK zuzen zehaztea, taularen arabera; izan ere, hori hartuko da kontuan faktura dagokion erakundera bidaltzeko eta, bertan, tramitazioa egiteko.

Faktura elektronikoa egiteko orduan, hornitzailearen datuen atalean ez da posta elektronikoko helbide bat derrigorrez adierazi behar, baina helbide bat jartzea gomendatzen da, posta elektronikoz bidez komunikazioa errazteko.

Faktura elektronikoa edukiaren deskribapena egitea komeni da.

4.- Jasotako faktura zuzena bada, ondo jaso dela eta Getxoko Udaleko Fakturak Sartzeko Puntu Nagusian erregistratu dela esateko mezu elektronikoa bat bidaliko da. Hala ez bada, atzeman den arazoa azaltzeko mezu bat bidaliko da.


5.- Izenpe-ko "ef4ktur" software erabiltzen baduzu fakturak egiterakoan, kontuan hartu behar duzu, programa honetako konfigurazioan, denbora zigaraketa ipintzeko aukeraketa ez duzula aktibatu behar, hurrengo pantailan adierazten den moduan:



Hurrengo fase batean, Getxoko Udaleko Fakturak Sartzeko Puntu Nagusiaren ataria erabilgarri egongo da, aurkeztutako fakturak kontsultatzeko eta atariaren bidez fakturak aurkezteko.

Atarira sartzeko udal webguneko Administrazio Elektronikoko Bulegoa erabiliko da (<http://www.getxo.eus/>).

Gainera, geroago, *Web Service* bidez faktura elektronikoen aurkezpena automatizatzeko aukera ematen duen sistema bat prestatuko da.

 <p>Getxo UDALA - AYUNTAMIENTO</p>	<p>Getxoko Udala Informatika</p> <p>Basagoiti etorb., 20 48992 GETXO – BIZKAIA</p>	<p>http://www.getxo.net/ informatika@getxo.net 944.66.02.16 944.66.02.19</p>
--	--	--

5. OHIKO ARAZOEN KONPONKETA

Jarraian, faktura elektronikoak sartzeko puntu nagusiak itzultako akats nagusiak laburbildu dira (bai faktura bidali zuen helbide elektronikora, bai faktura egin zuenak zehaztutako helbide elektronikora). Gainera, akatsen arrazoi nagusiak eta horietako bakoitza ebazteko bideak adierazi dira.

Arazoa	Arrazoa	Ebazpena
Sistemak "SIGNATURE_NOT_VALID akatsa itzultzen du	Faktura Izenperen "ef4ktur" softwarearen bidez egin da eta denbora-zigilua aukera aktibatuta dagoela sinatu da; hori dela eta, aipatutako programaren arazo bategatik, sinadura ez da baliozkoa.	"ef4ktur" programaren ezarpena aldatu, sinaduran denbora-zigilua kontuan har ez dadin (ikusi jarraibide orokorrak), eta faktura berriz egin, sinatu eta bidali.
Sistemak "Ez dago formaturik dokumentu mota horrentzako" akatsa itzultzen du.	Faktura elektronikoaz gain, PDF fitxategi bat bidali da. FESPNk ez ditu fitxategi horiek onartu.	Mezua informatiboa da eta, faktura erantsi baldin bada, ez da bidalitako faktura elektronikoa baliozabetzen .
Sistemak "Akatsa egiaztatzean" akatsa itzultzen du.	Bidalitako faktura elektronikoa Facturae 3.1 formatuan dago. Gaur egun , formatu hori ez da baliozkoa .	Faktura berriz egin, sinatu eta bidali, baina faktura egiteko erabiltzen den programan Facturae 3.2 edo 3.2.1 formatua aukeratu, ez 3.1
Sistemak "Akatsa sinadura egiaztatzean" akatsa itzultzen du.	Sistemak ezin du faktura elektronikoaren sinadura egiaztatu .	Faktura egiaztatu: zer ziurtagirirekin sinatu da, sinaduraren prozesua eta faktura geroago aldatu ez izana .
Sistemak "Akatsa sinadura egiaztatzean" akatsa itzultzen du.	Faktura denbora-zigilurik gabe sinatu da (hori zuzena da), baina sinatzeko erabilitako ordenagailuaren data/ordua ez zen zuzena (adibidez, aurreratuta zegoen). Beraz, sinadura egiaztatzean, sistemak ikusten du iristen den sinaduraren data/ordua eta heltzen den uneko data/ordua ez dela berdina eta, gainera, sinadura faktura heldu ondoren egin dela. Hori ezinezkoa da.	Sistemaren data/ordua zuzendu eta faktura berriz egin, sinatu eta bidali. Aldea txikia bada (adibidez, ordua minutu batzuk aurreratuta bada), sinaduraren eta bidalketaren arteko denbora-tartea itxaron , sinaduraren data/ordua egiaztapena egiten den uneko data/ordua baino lehen egoteko.
"ef4ktur" programak "Ez da bidalketa-bitartekoa konfiguratu" mezua itzultzen du faktura bidali nahi denean.	Posta konfiguratu gabe dago (ostalaria, ataka, erabiltzailea, pasahitza, bidaltzailea) automatikoki bidali ahal izateko "ef4ktur" programaren ezarpen-aukeretan.	"ef4ktur" programan hauxe egin: "Tresnak → Ezarpena → Posta" eta eskatutako eremuak bete, informatika-zerbitzuak edo zure posta elektronikoaren hornitzaileak adierazitakoari jarraituz.
"Factura.e" programak dio ez direla existitzen erakundearen, kontabilitate-bulegoaren edo unitate izapidegilearen kodeak .	Kode horiek benetakoak dira faktura FACEn edo FACeri lotuta sartzeko puntu batean aurkezten denean. Kasu horietan, kodeek DIR3 direktorio orokorrean alta emanda egon behar dute. Getxoko Udala ez dago FACeri lotuta ; hortaz, ez daude DIR3an alta emanda.	Ez sartu kodeak ; izan ere, gure faktura elektronikoak sartzeko puntu nagusiak ez ditu egiaztatuko.



Getxoko Udala
Informatika
Basagoiti etorb., 20
48992 GETXO – BIZKAIA

 <http://www.getxo.net/>
 informatika@getxo.net
 944.66.02.16
 944.66.02.19

Arazoa	Arrazoa	Ebazpena
	Horregatik kexatzen da programa.	
"ef4ktur" programan, hornitzaileak ez daki zein ataletan jarri behar dituen erakundearen, kontabilitate-bulegoaren edo unitate izapidegilearen kodeak .	"ef4ktur" programan kodeak ez dira bezero batentzat sartzen (hori logikoa eta funtzionala litzateke), faktura bakoitzarentzat sartu behar dira , "Kontratatzailearen datuak" atalean.	Lehen esan bezala, nahiz eta kodeak sartzea beharrezkoa ez izan, truko bat dago gauza bera faktura bakoitzean egin behar ez izateko: bezero bakoitzarentzako fakturen "txantilo" bat sortzea , kodeak betetzea eta zirriborroetan uztea. Bezero horrentzako faktura egin behar denean, dagokion txantilo faktura esportatu eta inportatu behar da . Horrela, zirriborroetan beste faktura bat sortzen da eta bertan sartu ahal dira egin beharreko fakturaren datuak, gero izapidetzeko. Horren abantaila da kodeak jada sartuta daudela.